

167. ALDIZKARIA - 2019ko abuztuaren 26a

BAZTAN

Laburpena, 2019an Baztango kirol-klubek ohiko kirol-jarduerak garatzeko dirulaguntzena

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoari jarraituz, argitara ematen da deialdiaren laburpena; horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>). DDBN (Identif.): 470443.

Baztango Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko abuztuaren 9an egin bilkuran, onetsi zituen 2019an Baztango kirol-klubek ohiko kirol-jarduerak garatzeko dirulaguntzak eskatzeko deialdi publikoa arautzen duten oinarriak.

Lehendabizikoa.—Onuradunak.

Baztanen egoitza soziala duten kirol-klubek hartzen ahal dituzte oinarri hauen xede diren dirulaguntzak.

Bigarrena.—Xedea.

Oinarri hauen helburua da Baztanen egoitza soziala duten kirol-klubek ohiko kirol-jarduerak garatzera zuzendutako dirulaguntzak norgehiagoka emateko araubidea jartzea.

Hirugarrena.—Oinarri arautzaileak.

<http://www.baztan.eus/wp-content/uploads/sites/56/2019/08/deialdia.pdf>

Laugarrena.—Eskabideak aurkezteko epea.

Eskaerak egiteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 30 egun naturalen barnean. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da. Eskabideak ezarritako epez kanpo aurkezteak onartuak ez izatea ekarriko du.

Baztanen, 2019ko abuztuaren 9an.—Alkatea, Joseba Otondo Bikondoa.

Iragarkiaren kodea: L1910852